

El grupo de teatro «Intxitu», actúa en la compañía de María

Bergara (DV, por Larrea). — Gaur, gaueko 10etan, Intxixu taldeak, antzerki zaio bat ezkeiniko du. Emankizun hau, Eusko Jaularitzaren Antzerki-Zirkuito barruan antolatzen da. Intxixukoen, antzeztuko duten obra, Mario Benedettiren «Pedro eta Kapitaina» da.

M. Benedetti uruguairra da nahiz eta azken bederatzi urte hauetan atzerrian bizi behar izan arazo politikoengatik. Idazle bezala lan zabala du. Bere arlo landuena olerkaritza dugu, eta bere lan guztietan nabari dezkegu duen poeta anima hori. Antzerki lan honetan, marra berezi hori ere dasta dezakegu.

Zazetari lanetan esperientzia badauka eta liburu batetan bildu ditu hoietakozenbait.

Intxixu taldea berriz, 1968, urtean sortu zen. Orditik hona bederatzita montaita prestatu ditu. Hortaz aparte zenbait konferentzia eta ikastaro eman ditu auzoetan, ikastolan etabar.

Intxixuren historian zehar zenbait

antzerki forma parateatral landu ditu, hala nola pastoralak, astolasterak, karroak...

Oraingo honetan interpretazioa landu nahi izan du. Horretarako gutiz egokia iruditi zaie Mario Benedetti-ren «Pedro y el Capitan». Ez bakarrik interpretaziparengatik hartu duten esku artean, baita ere azaltzen dituen giza baloreak kontuan hartu dituzte, bi pertsonaiaren arteko tira-birak, sentimenduak, gorrotoak...

Euskal Herriko ikuspegitik ere oso hurbila ikusi dugu obra hau, identifikazioa sentiturik zenbait aldietan.

Beraza, badakizute bada antzerki zaleok, gaur, gaueko 10etan, Cía. de Mariako aretoan, antzerki zaio interesgarri bat daukazutela.

Cartelera

Salón Novedades. A las 5, 7,30 y 10,30 , «Quien tiene una suegra, tiene un tesoro».